

ASOCIACIÓN GALEGA DE MULLERES AFECTADAS POR CÁNCER DE MAMA «PUNTO E SEGUIDO»
Centro Cívico Eiris. C/ Terranova de Eiris, 7 **Móvil:** 676 568 914
15009 A CORUÑA **e-mail:** puntoeseguido@gmail.com

ANÉMOMA (Ámbito Actuación: MARINA BAJA)
C/ La Biga, 14 **Tel.:** 865 680 385 • **Fax:** 965 853 175 • **Móvil:** 620 897 324
03501 BENIDORM (Alicante) **e-mail:** info@anemonamarinabaixa.org

ASOCIACIÓ D'AJUDA MÚTUA I LLUITA CONTRA EL CÁNCER DE MAMA L'OLIVERA
C/ Canal, 6 (sobre mercat Puigmercadal) **Tel.:** 938 752 311
08241 MANRESA (Barcelona) **e-mail:** olivera@ajmanresa.cat
(Lunes por la tarde)

PICAM
Casal Cívic Molins del Rei. Calle Ca la Córdia, 5 **Tel.:** 672 021 403 / 648 526 625
08750 MOLINS DE REI (Barcelona) **e-mail:** picam@picam.eu

AGAMAMA
Centro Municipal «Hermanas Mirabal» **Tel. y fax:** 956 266 266
Plaza Real Hospital de la Segunda Aguada, s/n, 2.ª planta **Móvil:** 615 601 357
11012 CAZIV **e-mail:** agamama@agamama.org

AMMCOVA
C/ Miguel de Castro, 100. 46003 VALENCIA **Móvil:** 628 449 399

ARIADNA / Asociación de dones en la lluita de les malalties del càncer de mama
C/ Metge Carreras 80, entlo., 3.ª **Tel.:** 937 784 708
08640 OLESA DE MONTSERRAT (Barcelona) **Móvil:** 689 554 715
www.ariadna-olesa.org **e-mail:** associacioariadna@gmail.com

ESPERANZA / Asociación de mujeres con cáncer de mama de la Axarquía
C/ Enrique Valdulken, 19 **Tel.:** 951 250 127 • **Móvil:** 744 488 831
29700 VELEZ-MÁLAGA (Málaga) **e-mail:** a.esperanza@hotmail.es

ASOCIACIÓN SOLC / Associació Pel Suport i Ajuda en el Tractament del Càncer d'Alcohol comarca
Convenio de colaboración con FECMA en todo lo relacionado con el Cáncer de Mama
C/ San Doménec, 8, bajo **Tel. y fax:** 965 545 053
03801 ALCOY (Alicante) **Móvil:** 625 817 685
www.asociacionsolc.com **e-mail:** associacio.solc@gmail.com / marce.solc@hotmail.com

Asociación Oncológica Extremeña - AOEX
Convenio de colaboración con FECMA en todo lo relacionado con el Cáncer de Mama
C/ Padre Tomás, 2 **Tel.:** 924 207 713
06011 BADAJOZ **Móvil:** 661 734 725 / 691 483 176
www.aoex.es **e-mail:** info@aoex.es

APAC Asociación Comarcal de Afectados por Cáncer
Convenio de colaboración con FECMA en todo lo relacionado con el Cáncer de Mama
Maestro Chanzá, 14-B **Tel.:** 965 340 665
03400 VILLENNA (Alicante) **Móvil:** 695 932 340
www.apacvillena.org **e-mail:** info@apacvillena.org

Asociación LUCHA Y SONRÍE POR LA VIDA de Pilas
Plaza de Belén 12 (Centro Comercial Plaza de Belén), local 1, bajo **Móvil:** 658 915 577
41840 PILAS (Sevilla) **e-mail:** alusvi@gmail.com

MACMA - Asociación de Mujeres afectadas de cáncer de mama de Aspe
C/ El Sol, 78. 03680 ASPE (Alicante) **Tel.:** 685 548 222

AMAC
C/ Puerta de Chinchilla 3, escalera derecha, 1.º C **Tel.:** 967 669 141
02008 ALBACETE **Móvil:** 680 602 775 / 678 510 931
www.mujerescontraelcancer.com **e-mail:** amacalbacete@hotmail.com

APAMM
C/ Abad Nájera, 3, local 2, bajo dcha. **Tel.:** 965 217 955
03002 ALICANTE **Móvil:** 648 402 628
www.facebook.com/AlicanteApamm **e-mail:** apamm@apamm.es

AMACMEC
C/ Olegario Domarc Seler, 93, entresuelo **Tel.:** 965 447 552 • **Móvil:** 667 695 176
03206 EL CHE (Alicante) **e-mail:** info@amacmec.org

AMAMA
C/ González Garbín, 17, entlo. 2 **Tel.:** 950 245 124 • **Móvil:** 619 099 441
04001 ALMERÍA **e-mail:** amama.al@gmail.com

Grup AGATA
C/ Tusset, 32-7e, 4a **Tel.:** 934 159 394
08006 BARCELONA **Móvil:** 649 062 892
www.grupagata.org **e-mail:** info@grupagata.org

GINESTA
C/ Pere el Gran, 32 **Móvil:** 639 280 708
08720 VILAFRANCA DEL PENEDÉS (Barcelona) **e-mail:** ginesta.vilafranca@gmail.com

AMUCCAM
Centro Cívico M.ª Cristina. C/ General Dávila, 124 **Tel.:** 942 225 354 • **Móvil:** 628 709 619
39007 SANTANDER **e-mail:** amuccam@gmail.com

ACMUMA
C/ Teniente Olmo, 2, 2.ª, puerta 8 **Tel.:** 956 514 515 • **Móvil:** 619 461 751 / 616 136 113
51001 CEUTA **e-mail:** acmuma@gmail.com

SANTA AGUEDA
C/ Cuesta, 16 **Tel.:** 926 413 109
13500 PUERTOLLANO (Ciudad Real) **Móvil:** 656 489 184
www.sagueda.com **e-mail:** sagueda@gmail.com

ROSAR
Avenida Primero de Julio, 46 **Móvil:** 615 112 169
13300 VALDEPEÑAS (Ciudad Real) **e-mail:** info@rosae.org.es

KATXALIN
Edificio Txara, 1, sección Lankide. Paseo de Zarategui, 100 **Tel.:** 943 245 608
20015 SAN SEBASTIÁN (Guipúzcoa) **e-mail:** katxalin@katxalin.org

AOCAM
C/ Antonio Machado, 2-A, local **Tel. y Fax:** 959 812 345
21007 HUELVA **Móvil:** 659 781 169
www.aocamhuelva.es **e-mail:** aocam@aocamhuelva.es

ADIMA
C/ Alcalde Rovira Roure, 80 **Tel.:** 973 167 141 • **Móvil:** 695 580 681
25198 LLEIDA **e-mail:** adimalleida@gmail.com

ALMOM
C/ Burgo Nuevo, 15, 2.ª dcha. **Tel.:** 987 230 041
24001 LEÓN **Móvil:** 605 034 100 y 691205430 / 34
www.almom.es **e-mail:** info@almom.es

ASAMMA
C/ Jaboneros, 11, bajo **Tel.:** 952 256 951
29009 MÁLAGA **Móvil:** 659 885 480
www.asamma.org **e-mail:** info@asamma.org / asociacionasamma@gmail.com

Asociación Antequera con las Mujeres Mastectomizadas / AAMM
C/ Calle Encarnación, 10 **Móvil:** 653 771 695
29200 ANTEQUERA (Málaga) **e-mail:** aammantequera@hotmail.com
www.facebook.com/mastectomizadasantequera

ALBA
C/ Carrer Sant Josep, 5, 1.º **Tel.:** 971 352 156
07702 MAHÓN (Menorca) **Móvil:** 676 979 110
www.albamenorca.es **e-mail:** albamenorca@hotmail.com

AMIGA
C/ Fernández Ardavin, 8, primera escalera, 5.º B **Tel.:** 968 216 668
30001 MURCIA **Móvil:** 678 660 457
www.amigamurcia.es **e-mail:** amigamurcia@gmail.com

SARAY / Asociación Navarra de Cáncer de Mama
C/ Ermitagña, 11, bajo **Tel. y Fax:** 948 229 444
31008 PAMPLONA (Navarra) **e-mail:** info@asociacionsaray.com
www.asociacionsaray.com

ADICAM (Asociación de diagnosticadas de cáncer de mama de Pontevedra)
Casa Da Bola. C/ Valentín Losada, 1, 1.º **Tel.:** 986 307 158 • **Móvil:** 629 945 925
36940 CANGAS DE MORRAZO (Pontevedra) **e-mail:** adicamadcam@gmail.com

AMATE
Avda. Príncipes de España, Grupo de 148 viviendas, bloque C, local 8 **Tel.:** 922 220 564
38010 SANTA CRUZ DE TENERIFE **e-mail:** amateasociacion@gmail.com **Móvil:** 655 913 215

AMAMA - Sevilla
Avda. de la Cruz Roja, 38 **Tel.:** 954 540 213 • **Móvil:** 653 610 471
41008 SEVILLA **e-mail:** amama@amamasevilla.org

ACAMBI
C/ General Eguía, 33, 1.º izqda. **Tel.:** 944 421 283 • **Móvil:** 615 769 027 / 648 283 300
48013 BILBAO (Vizcaya) **e-mail:** info@acambibizkaia.org

AMAC-GEMA
Plaza del Pilar, 14, 3.º centro **Tel.:** 976 297 764
50003 ZARAGOZA **Móvil:** 640 294 009
www.mujerycancer.org **e-mail:** amacgema@gmail.com

AMACMA D8
C/ Juan Piqueras, 1, pta. 1 **Móvil:** 649 625 154
46340 REQUENA (Valencia) **e-mail:** amacmad8@gmail.com

MARINADA VNG. CENTRE CÍVIC LA GELTRÚ
Plaça de l'Associació dels Alumnes Oberts, s/n - Centre Cívic La Geltrú **Tel.:** 938 147 406
08800 VILANOVA I LA GELTRÚ (Barcelona) **Móvil:** 672 243 984
www.marinadavng.cat **e-mail:** marinadavng@gmail.com

AUBA / Associació de dones afectades de càncer de mama a Mallorca
Casal de la Dona. C/ Foners, 38, bajos **Tel.:** 971 775 530
07006 PALMA DE MALLORCA **Móvil:** 660 613 875 / 636 371 702
www.aubamallorca.com **e-mail:** aubamallorca@hotmail.com

ASAMMA / Asociación Alavesa de mujeres con cáncer de mama y Ginecológico
C/ Pintor Vicente Abreu, 7, bajo - Oficina 4 **Tel.:** 945 223 292
01008 VITORIA-GASTEIZ **e-mail:** asammavitoria@gmail.com

AJICAM (asociación jennense cáncer de mama)
C/ Sefarad, 20, local (entrada por C/ Dr. García Jiménez) **Tel.:** 953 885 191 • **Móvil:** 622 432 157
23005 JAÉN **e-mail:** ajicamporti@ajicam.org

Asociación Mujeres con Cáncer Bahía
C/ Orquídea, 6 **Móvil:** 620 119 910
11500 PUERTO DE SANTA MARÍA (Cádiz) **e-mail:** asociacionmujeresbahia@gmail.com

Asociación Caudetana de lucha contra el cáncer - ACALUCA
Centro Social Vicente Lillo (antiguo Centro de Salud). C/ José Ruiz Ruiz **Tel.:** 953 885 191 • **Móvil:** 622 432 157
02660 CAUDETE (Albacete) **e-mail:** correo@acaluca.org

A.E.E.O. Asociación Española de Estética Oncológica
C/ Juan Rumeu García, 28, despacho 1G, Edif. Voluntariado **Móvil:** 616 609 850 / 607 934 308
38008 SANTA CRUZ DE TENERIFE **e-mail:** eoncologica@gmail.com / aeo.docente@gmail.com



ADIERAZPENA
BULARREKO MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2018

ADIERAZPENA 2018

BULARREKO MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Bularreko Minbiziaren Espainiako Federazioak (FECMA) eta horren kide garen 45 Elkartek, urteko egun guztietan bizi izaten dugu errealitate hori, baina **urriaren 19a Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna** izendatu dugu: aukera ona deritzogu gure gogoetak eta aldarrikapenak agerikoago egiteko.

Beste behin, kudeaketa publikodun osasun-sistemearekin dugun konpromisoa agertzen dugu, hain zuzen, arreta osoa, pertsonalizatua, jakintza-alor anitzekoa, kalitatezkoa eta doakoa ematen duenarekin eta gizaki eta herritar izaerarekin loturiko osasunerako eskubidea oinarri duen izaera unibertsala duenarekin.

Hortaz, bertoko osasun publikoan jarri dugun konfiantzak iraun dezan, horren entzutea gal ez dadin eta etorkizunean iraunkorra izan dadin lan egiten dugu.

Azken bi hamarkadotan, aurrerapen nabarmenak izan dira, oro har, gaixotasun onkologikoei eta, batez ere, bularreko minbiziari aurre egiteko. Emakume/paziente gisa, aurrerabide horien zuzeneko lekuko gara: diagnosi-metodoak fidagarriagoak dira, terapiak ez dira hain erasotzaileak eta eraginkorrak dira, botika aurreratuenak ditugu eskura eta gutaz arduratzen diren profesionalak etengabe prestatzen ari dira.

Aurrerapauso oro da garrantzitsu, baina, beharbada, minbizi jakin batzuk goiz detektatzeko kanpainak eta ikerketan eta berrikuntzan izandako aurrerapenak dira nabarmenenak, Espainian orain dela 15 urte minbiziari aurre egiteko lehen Plan Nazionala taxutu zenetik.

Diagnosi hobeak, biziraupen-indizeak, minbizitik bizirik atera direnekiko kezka, zainketa aringarrien bidezko arreta, laguntza psikologikoa, berrikuntzak eta ikerketak duten garrantzia azpimarratu izana eta bularreko minbiziari aurre egiteko eboluzio ona, ez ziren posible izango osasun-administrazioen, profesionalen, eta pazienteen elkartze-mugimenduaren lanik eta konpromisorik gabe. Izan ere, pazienteen elkartze-mugimenduaren ikuspegitik, onkologian helburuak eta edukiak berraztertzen, eguneratzen, ebaluatzen eta berriz zehazten jarraitu beharra dago, iraganean baino etorkizunean pentsatzen.

Bularreko minbiziaren pazienteengan kontrako efektuek badiraudelako, eta, hainbat arlotan, lan- eta lanbide-arloetan batik bat, efektu horiek ondorio kaltegarriak dakartzatelako.

Bidea ibiltzeke dago oraindik, pazienteen elkartze-mugimendua (Bularreko Minbiziaren Espainiako Federazioa (FECMA) da horren partaide) gizarte-eragileztat har dadin, **horrek Osasunaren aldeko Estatu Itun batean parte har dezan eta osasun-estrategiak taxutu, jarraitu eta ebaluatzen ekar lezakeena aintzat har dadin.**

Tentuz jokatu beharra dago proposamen terapeutiko bideraezinak edo ebidentzia zientifikorik gabeak zabaltzen direnean; **metastasi onkologikoein zerikusirik duen orotan sakondu beharra dago; bularreko minbiziaren diagnostikatu zaien adin ugalkorreko emakumeak arreta handiz artatu behar dira; gizarte- eta lan-arloetako arreta sustatu beharra dago;** Autonomia Erkidegoek sustatu eta garatzen dituzten ekimenak eta planak ahalik eta eraginkorren eta efizienteen koordinatu behar dira eta ikerketa, eta berrikuntza bultzatzen jarraitu behar da, eta horien emaitzak ezagutarazi behar dira, hala balegokio, horiek asistentzia-sare guztian ezar daitezkeen.

Ikerketako aurrerapenak, genomikaren ekarpenak, pertsonalizatutako doitasuneko medikuntzak edo egile biologiko, informatiko eta epidemiologiko berriak, besteak beste, osasun-administrazioak eta asistentzia-sareko ospitaleek elkarrekin lan egin dezatela eta hobeto koordinatu daitezela eskatzen dute. Aurrerabide eta aldaketa horiek guztiek, hortaz, antolatze modu berriak eta, kasu batzuetan, legegintza-aldaketak behar izango dituzte, baita erabaki estrategikoen edukiak datorren hamarkadara bideratzea ere.

Horretan esku hartzen duten eragile guztiak premiatzen ditugu modu zintzo eta koordinatuan lan egitera, botika onkologikoen gehikuntza posiblei zorrotz ekiteko, eta, era berean, guztien -farmazia-industria barne- ahalegin koordinatua behar da, asistentzia-sare osoan berrikuntza eta teknologiko aurrerapenak modu bizian sar daitezkeen.

Datu eta iritzi guztiek osasun-sistema nazional ona dugula eta pazienteek horri buruzko iritzi ona dutela adierazten digute, baina eredu horrek, gizartean gertatzen ari diren aldaketak (patologia onkologiko jakin batzuen kronikotasuna minbizitik bizirik atera direnekin), aurrerapen asistentzial eta terapeutikoak, ikerketa eta berrikuntzaren ekarpenak eta pazienteen eskakizun soziosanitario berriak bereganatu eta kudeatzeko gai izan behar du.

Berriro ere, minbiziaren gaineko biztanleria-erregistro homogeneoak -egituratuak eta eguneratuak- egon beharra mahaigaineratzen dugu, kasu eta heriotza berrien, pertsona diagnostikatuen adinaren, minbizi metastasiko kasuen edo minbiziaren diagnostikatu zaien adin ugalkorreko emakumeen berri izateko.

Tumore-erregistro horien bidez, minbiziak bertoko biztanleengan duen intzidentziaren «argazki» zehatzagoa izango genuke. Gaur egun, minbiziaren gaineko biztanleria-erregistroen estaldura % 17koa da apenas Espainian, eta horrek esan nahi du hobetzeko tarte handia dagoela.

Gure azken helburua minbizi-mota guztiak prebenitu eta sendatzea posible izan dadila eta bakardadez, beldurrez eta isilunez «tindatutako» etorkizunak saihesten laguntzea besterik ez da.

Emakumeok/bularreko minbiziko pazienteok jakin badakigu ez garela amaierara iritsi, minbiziaren azpiratzeko oraindik bide luzea ibili behar dugula, eta, minbiziak dirauen bitartean, geuk, beste askorekin lazo arrosa solidarioa partekatuz, **«ez gara geldituko»** esaten dugu, hots, oraindik balioduna den aldarrikapenezko esamoldea.